



PANTXOA CARRERE ESPERANTZAN

Pantxo Carrere (Azkaine, Lapurdi, 1948) ezaguna egin zen Peio Ospitalekin batera osatu zuen "Pantxo eta Peio" bikotearekin. Lau abestiko lehen EPa 1969an kaleratu zen, eta guztira 11 disko luze, 2 EP eta single bat argitaratu eman zituen bikoteak. 2016an eten zen bikotea, handik aurrera Pantxo Carrere bakarkako ibilbideari lotu zai. "Anaitasunean" (Elkar 2016), eta hemen du, orain, bigarren lana.

Pantxo Carrere kantariaren "Esperantzan" bigarren diskoa 2021eko abenduan eta 2022ko urtarrilean grabatu da. Nahasketak eta masterizazioa Iruñeko Erviti Estudioan egin ditu Josu Ervitik 2022ko otsailan. Iñaki Dieguezek hartu du ekoizpen eta konponketen ardura. Asko dira Pantxoaren diskoan parte hartu duten eta zuzenekoaren zerrendan dauden musikari kolaboratzaileak: Ritxi Salaberria (baxua, kontrabaxua), Igor Telletxea (bateria, perkusioak), Angel Unzu (gitarra akustikoa, elektrikoa, mandolina, bouzoukia), Claudia Oses (biolina), Ivan Carmona (txeloa) eta Iñaki Dieguez (akordeoia, pianoa, teklatuak, programazioak). Eta musikari gonbidatuenn atalean: Eñaut Elorrieta (ahotsa, Esperantzan), Patxi Garat (ahotsa, Zendako euskara), Xabier Euzkitze (ahotsa, Pilota euskal jokoa, eta Esperantzan abestiaren letra), Naia Carrere (ahotsak, Bakea), Ugo Carrere (ahotsak, Bakea, Bi itzal, Amets baten hegalez). Ander Carmonak egin ditu argazkiak eta diseinuak.

Pantxo Carrere kantautorearen bakarkako bigarren diskoa da "Esperantzan". 73 urteko kantariak ez du galdu ez ahots-erregistroa, ez ahots-eremua ezta tinbrea ere. Gaztetako ahots fin, dotore eta erakargarriarekin jarraitzen du kantatzen.

Pantxoaren musika ibilbidean kantua bitartekoa edo baliabidea izan da askatasunaren helburua lortzeko, Euskal Herriaren burujabetza aldarrikatzeko, euskararen defentsarik onena egiteko. Herri libre bat anaitasunean. Esperantza horrekin jardun du abesti mitikoen partaidea den Pantxoak, interpretazioa landu du sormena baino gehiago, eta Euskal Herriko kantu esanguratsuenetarikoak haren ahotsarekin ezagutu ditugu. Abesti berriak datozenean eragina du 70eko eta 80ko hamarkadetan kantatu genituen abestien xarmak. Oroitzapen horrek erakartzen gaitu ahotsa entzutearekin batera. Pantxo ospetsuak ongi jakin du nola atondu bere ahots kilikaria musikarekin (ikus beheko zerrenda). Bai, Pantxoaren "Esperantzan" diskoak kantautoreen hitzordua du, folka, tradizioa eta poparen amantalak erabiliz. Gertuko egingo zaigu, sentibera, eta harekin batera kantatzeko astindua etorriko zaigu jarraian. Pantxoaren filosofia honela laburtu daiteke: kanta ezazu euskalduna, kanta izeazioz zure herriari, zapalduetako herri eta gizaki guztiei, abestu maitasunari. Hori ez da, soilik, esperantza. Hori, batez ere, ekintza engaiatua da disko eta kantu bilakatuta.

DEMOKRAZIA

Zoin abilki zapaltzen gaituzten demokrazien izenean bi estatuek, frantsesak zein espainolak. Adibidez, gure gain hartzeko esku-bideak ukatuz. Erabat pop formazioa gitarra, baxua eta bateriarekin, baina Manex Pagolaren musikaren funtsa galdu gabe.

ESPERANTZAN

Musika airoa Xabier Euzkitzeri bidali niona. Hitz baikorrak idatzi ditu Euzkitzek, esperantzeri leiho guziak zabaltzen dituen, eta Eñaut Elorrietaekin pozik kantatzen ditut. Harmonia irekiak pop soinuarekin, biolin eta akordeoi esaldiekin lagunduta, Pantxo eta Eñaut Elorrietaren ahotsak nabarmentzeko.

MISTRAL GAGNANT

Beti gustatu izan zait semeari eta alabari nire haurtzarora kontatzea. Eta haurrak sobera fite handitzen dira, eta denbora hain laster pasatzen ikusteak triste jartzen nau. Ukitu mediterraneo bat bouzoukiaren kolorearekin, Renaud Séchanen kantu honetarako, zeinaren jatorrizko bertsoa piano batek bakarrik laguntzen baitu.

BI ITZAL

Sustrai Colinari bidali nion dramatiko kutsua duen melodia hau etorkinen zorte iluna aipa zezan, beren bizia arriskatzeko denetara prest diren horieri, eta Bidasoan ito direnekin akordatzeko. Gitarra elektrikoaren eta txeloen bidez, abestiak aurrera egin ahala sartuz doazenak, itsasoan edo Bidasoa ibaian migratzaileen heriotzaren tragedia eta tristura ikustera garamatza.

PILOTA, EUSKAL JOKOA

Kurri abiatu bezain laster hasi nintzen pilotan, herriko plazatik hurbil bizi bainintzen. Geroztik asko maite ditut pilota joko guziak, eta kantu honen bidez goraiatu nahi ditut pilota eta euskara, elkarri josiak ibil daitezela beti. Xalbadoren bertso zahar hauen konponketa erritmiko eta modernoa Xabier Euzkitzeren ahotsaren laguntzaz.

HAURDUN - EN CLOQUE

Ba ote da emazteetan ama baino emazte hobeagorik? Kantu hau eskainiko diet zapalduak eta bortizki erabiliak edo bortxatuak diren emakumei, beren eskubideen alde borrokatu nahian beti. Abesti malenkoniatsua, Sustrai Colinak Renaud Séchanen abesti honen itzulpena goraiatzen duten akordeoi interludio politekin

ZENDAKO EUSKARA

Zendako euskara? Gure mintzaira delako, gure nortasun agiri bistakoena, eta lotsarik gabe beti eta nonahi mintzatu behar dugulako. Manex Pagolaren abesti klasikoa Patxi Garairen laguntzarekin.

EZ ETSI

Ozen kantatu nahi dut ez dela egiazko Euskal Herririk zazpi lurraldeak batean eta baturik ikusi gabe. Folk kantua nagusiki, perkusioak, mandolina eta akordeoia erabiliz.

LILY

Diskriminazio guzien aurka egindako abestia, erakutsi nahi dut mundu nahasi honetan zein zaila den bitzita etorkin batentzat. moldaketa oso errazak gitarra, akordeoi eta kontrabaxuarekin, letra bikainari garrantzia emateko.

AMETS BATEN HEGALEZ

Urteetan bidez bide, herriz herri, euskara eta Euskal Herria zabaldu nahian kantatutako abestia. 1970eko hamarkadara garamatzen biribilketa.

BAKEAN

Lortzen zaila den gauza bat, egunero lantzen saiatu behar dena. Kantu guztiz akustikoa gitarra, tiradera eta kontrabaxuarekin, Xalbadoren letra eta mezua benetan garrantzitsua den honetan.

MANEX BETI GOGOAN

Oparia. Bonus-track bat da Manex Pagolaren kantu zahar batzuei errebisioa eginez, zuzenean grabatu dugun popurri bat da.

- 1.- Demokrazia (M. Pagola)
- 2.- Esperantzan (U. Carrere - X. Euzkitze)
feat: Eñaut Elorrieta
- 3.- Mistral Gagnant (Renaud Séchan)
- 4.- Bi itzal (U. Carrere - S. Colina)
feat: U. Carrere
- 5.- Pilota euskal jokoa (P. Carrere - Xalbador)
feat: Xabier Euzkitze
- 6.- Haurdun - En cloque (Renaud Séchan)
- 7.- Zendako euskara (M. Pagola)
feat: Patxi Garat
- 8.- Ez etsi (M. Pagola)
- 9.- Lily (Pierre Perret)
- 10.- Amets baten hegalez (M. Pagola)
feat: U. Carrere
- 11.- Bakea (U. Carrere - Xalbador)
feat: N. Carrere, U. Carrere
- + bonus track
- 12.- Manex beti gogoan (M. Pagola)

ritxi aizpuru + pantxo carrere + iñaki dieguez
(2022ko apirilaren 27a)

